

SOAK

REGARDS & PERSPECTIVES | BEGIRADAK & IKUSPEGIAK

**Lurralde proiektu bat
Barnekaldea antolatu
eta zaintzeko**

**Un projet de territoire
pour (a)ménager
le Pays Basque intérieur**

2023ko URTARRILAN



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SINTESIA

Euskal Hirigune Elkargoak dei egin dio Euskal Herriko Garapen Kontseiluari **Baxenabarreko eta Xiberoko etorkizuneko Herriarteko Tokiko Hirigintza Planeko desfioei buruz**. Hirigintza dokumentuak dira, eta Euskal Herri eta Seignanx mailan eginen den etorkizuneko **Lurralde Koherentzia Eskemarekin**¹ koherentzia izan beharko dira.

Garapen Kontseiluaren iduriko, **plangintza tresna horiek proiektu baten zerbitzura** egon behar dute, lurralde-proiektu baten zerbitzura, lurralde horientzat nahi den zerumuga zehazten duena. Eta Euskal Herriko barnealdeak² zerumuga hori zehaztu behar du. Euskal Herriaren nortasunaren funtsezko parte baten berme da, baina bere gizarte ereduari eragiten dioten aldaketa garrantzitsu batzuei buru egin behar die. Nola moldatuko dira, beraz, "arau" berriak Euskal Herri barnealdeko berezitasunetara?

2019 eta 2022 urteen artean³ lurraldeetan egin dituen parte hartzezko atelier eta lan anitzen⁴ kapitalizazio lan baten ondotik, Garapen Kontseiluak, 2023ko urtarrilaren 31ko Zuzendaritza Kontseiluak onetsi txosten horretan, gizarte zibilak Euskal Herri barnealdearen gerorako nahi dituen orientabideak oroitarazi ditu. Hiru lurraldeek komunean dituzten 7 desfioaren inguruan deskribatuak dira (dokumentu honen lehen parte) eta hemen zerrendatu lurralde bakotxarentzat deklinatuak: Amikuze, Xiberoa eta Garazi-Baigorri/Iholdi-Oztibarre⁵ (dokumentu honen bigarren parte). Desafio horiek funtsezkoak dira eta etorkizuneko hirigintza dokumentuek erantzun beharko diete. Identifikatuak izan diren lehen desfio horiek Amikuzeren, Xiberoaren eta Garazi-Baigorri/Iholdi-Oztibarreraren etorkizuneko ibilbidea definitzeko lehen zirriborroa dira.

Garapen Kontseiluak Hirigune Elkargoari, Lurralde Koherentzia Eskemako sindikatuari eta beste elkargo publikoei eskatzen die hemen laburbilduak diren bere analisiak eta gomendioak kontuan har ditzaten, eta lan osagarriak has ditzaten gizarte zibilaren eta hautetsien artean.

¹ PLUi eta SCoT dokumentuen definizioak 1. eranskinean aurkituko dituzu.

² Euskaraz "barnealde" ere erran ohi da Euskal Herriko barnealdearen izendatzeko, nahiz eta "barnealdeko muga" zinez eztabaidagarria den. Euskaltzaindiak, aldiz, « barnealde » arautu du. Erran-molde hori erabiliko dugu Baxenabarre eta Xiberoaz mintzatzeko – nahiz eta "Lapurdi barnealdea" ere baden.

³ Hogeitabat atelier egin dira Euskal Herri barnealdean, numerikoari, turismoari, gazteen etxebizitzeari, SCoTi... buruzko lanen kari.

⁴ Lan horiek 2. eranskinean zerrendatuak dira.

⁵ Garazi-Baigorri/Iholdi-Oztibarre dira Herriarteko Tokiko Hirigintza Planen zatikatzearen bidez "Baxenabarreko hegoaldea" gisa definitua den lurraldearen ohiko izenak; izen horiek erabiliko ditugu ekarpen honetan zehar.



Garapen Kontseiluak eraman lurralde proiektuaren anbizio nagusietako bat⁶ da lehentasunez **Euskal Herri barnealdean inbertitzea**, Baxenabarreko eta Xiberoko erakargarritasuna eta dinamika ekonomiko eta soziala indartzeko.



Berritu dezagun **Euskal Herri barnealdeari** buruzko gure begirada. Aldi berean **erakargarria, produktiboa eta** bere funtzionamenduan **autonomoa** da. Usteetatik urrun, barnealdean dago Euskal Herriko ekonomia produktiboaren tasarik handiena.



Euskal Herri barnealdean, **lehen antolatzailea tokiko eragilea da**. Xiberoko eta Baxenabarreko garapenak **proiektuen kultura sendo** bat du oinarri, bai kolektiboa, bai enpresazkoa, zeinak enpresa ertain eta ttipien eta laborantza kualitatibo baten mantentzea eta garapena ahalbidetu baitu, bai eta bizitza sozial eta kultural aberatsa eta mendi bizia eta ontsa artatua ere.



Baina Euskal Herri barnealdea hauskorra ere da. Higiezinaren krisiak Garazi-Baigorriko lurraldea hunkitzen du eta Amikuzek uhin hori etortzen ikusten du. Lurraldeak ez daude prestatuak: **etxebizitzaren eskaintza** ttipia da, eta **diru-sarrerak**, oro har, beste leku batzuetan baino askoz ttipiagoak.



Euskal Herri barnealdea "**bihurgune batean**" da; tokiko aktoreek sentitzen dute aldaketa hori eskuetan hartzeko tenorea dela, ez dadin "kostaldearen bazterreko eremu" bihur, ez eta "babestutako gune" ere. **Aldaketa hori, batez ere, gizartearena da**, gaur egungo desafioak (eta bereziki trantsizio ekologiko eta energetikoarenak) ulertzeko moduari dagokionez, Euskal Herri barnealdearen berezko izpiritu eta eredu sozialarekin bat eginez.



Euskal Herri barnealdeak proiektu handinahia behar du, berrikuntza soziala, ekologikoa, kulturala eta ekonomikoa bizi dituen gune bilakatzeko, eta ez bakarrik ondare natural eta kulturalaren zaintzeko gune. Eragileekin burutu eztabaidek desafio handiak erakusten dituzte:

- Giza baliabide eta gaitasun berrien hartzea, biztanleei emanen zaien laguntzaren kalitatea eta enpresen indarraren hobetzeko.
- Kanpainako eta kalitatezko turismo baten indartzea ere, mendiko aktibitateen osagarri gisa.
- Herrialdera itzuli eta bere jakintza haren zerbitzura eman nahi duen belaunaldi gazte oso kalifikatu batean mobilizatu beharreko gaitasunak.
- Formatzeko eta lan munduko lehen esperientziak egiteko bizitokia falta duen gazteria.

⁶ « Quel dess(e)in pour le territoire ? Le projet de société basque en jeu » – CDPB 2019 https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/09/ContributionCDPB_projetdeterritoire_CD25092019.pdf

- Azkarki aldatzen ari den laborantza mundu bat, lagundu behar dena, eta Euskal Herri barnealdeko gizarte ereduaren oinarria dena.
- Tokiko garapenaren kultura batean oinarritzen den eredu, zeini berritzeko baliabideak eman behar baitzaizkio.
- Animazioari eta tokiko garapenari hatsa emateko gogo bat.



Lurralde antolaketari dagokionez, **oreka** bat bilatzen da **laborantzako lurren eta lur naturalen zaintzearen, ekonomiarako lurraren garapenaren**, eta herri zentroetarako beharretara egokitua **den bizitegi berri eta alokatze ekoizpenaren** artean.



Ukaezina da **Euskal Herri barnealdeari ezin zaizkiola aplikatu itsasertzeko eta itsasertzetik hurbileko lurrari buruzko arau berak**. Azken horiek, azken urteotan lur-kontsumitzaile handiak izan baitira, soiltasun-ahalegin handiena errespetatu beharko dute. **Xiberoari eta Baxenabarrerri, lur alorrean, malgutasun pixka bat ematea funtsezko baldintza da** Euskal Herriko barnealdearen **garapenaren alde inbertitzeko**.



Garapen eredu **lurraldeetako eragileekin definitu behar da**. Lurraldearen antolaketaren ko-ekoizleak dira eta ez dute nahi beren zoria haiek gabe marrazterik, ezta oreka hauskorrak zalantzan ematen dituzten logikak nagusitzerik ere.



Garapen Kontseiluak borondate horren ahotsa darama: Xiberoko eta Baxenabarreko *Antolaketa eta Garapen Iraunkorreko Proiektuaren* idazketari indarra emateko **eztabaida ireki eta prospektibo batena**.